

Azpiazuk hitzaldi bat eskainiko du gaur Oñatin

Berbaldia Liburuaren Egunaren ospakizunen baitan sartuta dago

Oñati. Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko hainbat ekintza antolatu ditu Oñatiko udal liburutegiak. Horrela, gaur, Jose Antonio Azpiazuk, historialari eta idazleak, hitzaldi bat eskainiko du kultur etxean, 19.00etatik aurrera.

Batez ere, XVI eta XVII. Mendeetako euskaldunen bizimodua eta historian espezializatu da Azpiazuk, eta makina bat kontu bitxi eta jakingarri azalduko ditu, Euskal Herriko historioaz oro har, eta baita Oñatikoaz ere. Azken batean, berak idatzitako liburuen atzean dauden bizi esperientzia personalei buruz ere hitz egingo du Azpiazuk gaur emango duen berbaldian.

Erakusketa

Bestalde, Animaliek hizketan zekiten garaia izeneko erakustaldia izango da ikusgai kultur etxean ostiralera arte. Herriko Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago Galtzagorri elkarteak prestatu duen ekintza hau. Bertan, bisita gidatuen bidez, Itziar Zubizarreta idazleak espreski idatzitako lau alegi edo fabula ikusteko aukera izango dute gaztetxoek DVD batean. >a.d.